

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

319 - 2023ko ABENDUA



AGUR, GABENARA



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

Pilotan jolastu ala jokatu?

Askotan nahasten ditugu *jokoa* eta *jolasa*, baina desberdin erabiltzekoak dira.

Jokoan irabazi edo galdu egiten da eta, gehienetan, sariren bat dago tartean. Lehia eta norgehiagoka dakar berarekin. Honenbestez, pilotariak, futbolariak, muslariak, apustuzaleek... **jokatu** egiten dute.

Jolasa, berriz, atsedean hartzeko jarduna da, josteta, eta bertan ez dago dirurik edo saririk jokoa. Helburua dibertitzea da, ez lehiatzea. Horrela, *baloiarekin jolastu* esango dugu.

Halaber, bi aditzek erregimen desberdina dute. **Jokatu** aditzak *da/du* erregimenak ditu: *Bikain jokatu dira pilotariak. Diru asko jokatu du. Jolastu* aditza,

berriz, da sailekoa *da: Baloiarekin jolastu dira* (eta ez **baloiarekin jolastu dute*).

Azkenik, tradizioaren arabera, bi aditzek ZERTAN galderari erantzuten diote: *pilotan, futboleant, tenisean... jokatu* (eta ez **futbolera jokatu*) edo *ezkutaketan/kaniketan jolastu*.

Beraz, forma hauek ez dira egokiak:

- ▶ **Pilotalekuan ezin da futbolera jolastu* (futboleant jokatu).
- ▶ **Ezkutaketan jolastu dute* (jolastu dira).
- ▶ **Musera jokatuko dugu?* (Musean jokatuko dugu?).
- ▶ **Urtero jolasten dut loteriana* (Urtero jokatzan dut loterian).

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzti eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Mikel Hernandorena, Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Agustin Saralegi, Ane Ubegun, Beñat Pellejero, Gabenara, Garazi Moreno, Idoia Zabaleta, Joseba García, Labrit, Taha Nahimi, Teresa Mariñelarena, Ana Telletxea eta Mainer Balda.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

02 ZUZEN ETA JATOR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

08 ELKARRIZKETA
Gabenara erromeri taldea



12 BATZARRE

14 ERREPORTAJEA
Gaztea bai, baina bizipen ugari



18 KULTURA

23 ERREPORTAJETXOA
Greba Feminista



26 KIROLA

25 MAITE DITUT MAITE
Uitzikoko meatzeak

28 PLAZATIK PLAZARA
Idoia Zabaleta Aranburu



31 AGENDA





Mikel eta Igor Astiz Buldain

Mikelek abenduaren 16an, 12 urte.
Igorrek, abenduaren 31n, 7 urte.
Zorionak maitiak!
Oso ongi pasa eta gozatu!
Besarkada goxo bi familia guztiaren partez.
Izugarri maite zaituztegu!

Izar Eguzkitza Telletxea

Aunitz urtez, Izar! Azaroaren 12an urte bat bete zenuen! Familiaren partez zorionak, tiki! Musu haundi bat.



Manex Mitxeltorena Eskamendi

Abenduaren 13an 7 urte beteko ditu gure mutilak. Segi horren alai ta jator ta aupa zu!! Muxu haundi bat etxekoan partez.



Alain Castrillo Cruz

Abenduak 1ean, 18 urte.
Aupa 18 Alain!!
ZORIONAK Atallutik!!!



Uxue Azpiroz Arrizurieta

Abenduaren 26an, 2 urte.
Zorionak gure etxeko printzesa txikia!!
Gustora ospatuko dugu zure urtebetetze eguna! Askok maite zaituen familiaren partez! Muxu pottolo bat!



Iraide Garaño Gastesi

Azaroaren 1ean, 11 urte.
Zorionak Iraide etxeko guztien partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Granja Martineza, GANTZA, Nafarroa
Jabi. 649 872 057 + faxa. 649 511 057
Mailoak.com | info@mailoak.com

TAXI
SOROA

609 168 217
Bederatzi plaza

PUBLIZITATEA
MAILOPEN

Labrit Multimedia
948 210 103
mailopez@labrit.net

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



PALESTINAREN ALDEKO EGITASMOAK

Estatu sionistaren genozidioa salatu eta Palestinari elkartasuna adierazteko keinuek jarraipena izan dute. Lekunberriko udaletxe aurrean eta Beteluko aparkalekuan elkarretaratzeak burutu ziren, Gabarin BDZ (Boikota, Desinbertsioak eta Zigorrrak) taldeko Patxi Gerriko eta Txuri Ollok hitzaldia eman zuten eta Printzian Imanol Satrustegi historialariak egoeraren hurbilpen historiko bat egin zuen.



KONTZEJUEKAKO HAUTESKUNDE PARTZIALAK

Hurrengoak izendatu berri dira alkate gisa:
-Baraibar: Maite Huarte Martija.
-Intza: Victor Manuel Salvatierra Gonzalez.
-Iribas: Camino Garralda Garin.
Arruitz, Gaintza, Mugiro eta Uztegiarekin ikusteko dago zer gertatuko den.



GUARDETXE BERRIA ERAIKITZEN

Eraikina Aralar mendiko kudeaketarekin eta mantentze lanekin lotuta egongo da. Biltzeko espazioak, biltegiak, komunak eta abar izango ditu. Erabilera anitzeko gune bat izateko helburua du, eta aldi berean, basozaintzako langileen beharrak aseko ditu, lanerako eta materiala biltegitratzeko espazio bat izateari dagokionez.

► Andoni Urrestarazu Garmendia (Betelu)



*Aukera hau hartuta
hemen barkamena
Gaizki egindakoa
hobetu bar dena
Askotan esan dizut
zara hoberena
Hurrengo_urtean biok
Kubara onena*

*Udarako zortea
zaila berdintzea
Gabonak gertu daude
onena poztea
Sevillatik honera
etorri al zea
Hogeita_hamaikan juergan
ikusiko gea*

Doinua: Orioko balearena. **Hurrengo:** Aiora Irastorza Garmendia

HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOAK

HITZORDURIK GABE
8:00* - 9:30

HITZORDUAREKIN
9:30 - 14:30



ZUK AUKERATU

Orain Nafarroako Gobernuaren herritarren arretarako eta erregistroko bulegoetara joan zaitezke HITZORDUAREKIN edo GABE.

* Ogasuneko bulegoak 8:30ean irekitzen dira

Informazioa
eta hitzordua



948 012 012

herritarrenarreta.nafarroa.eus

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



KEA

Irakasle ikasketak egiten hasi nintzenean, hau da, 1977an, tabakoa erretzea oraindik ez zegoen debekatua inon, alegia, garai hartan oraindik ez zegoen legerik gai hori erregulatzeko, eta, horren ondorioz, pentsa daitekeen bezala, jende gehienak edozein lekutan eta edozein ordutan erretzen zuen tabakoa, inolako errukirik eta errespeturik gabe erretzen ez zutenenganako, eta, gure ikasgeletan ere, beste horrenbeste gertatzen zen, hots, pentsa ezazue, gure gelan, berrogeita hamarren bat pertsona izanen ginen, gutxienez, eta, haietatik, erdiak baino gehiago, behinik behin, erretzaileak. Ikasgelak, garaiak, bai, baziren, baina ez oso luzeak eta zabalak, hortaz, edonork atera dezake kontua, han zer-nolako giroa jarriko zen orduak igaro ahala. Goizeko bederatzietan hasi, hamaiketan, ordu erdiko atsedenaldia, eta, gero, ordu biak arte, neska-mutil gehienak etengabe erretzen. Hantxe jartzen ziren giroa eta eguratsa arrunt astunak eta ezin arnastuzkoak ziren, batez ere, neguan eta eguraldi hotz egiten zuenean, hau da, leiho guztiak itxita egoten zirelako, baina, tira!, hantxe egon behar, nahitaez! Ez zen giro gela hartan.

Ikasgela hartan ere, ni atetik hurbil jartzen nintzen, pare-parean, gutxiago ibili behar izateko eta errazago molda nendin sartu eta ateratzeko garaian. Alde horretatik oso ongi, baina, leku hark, ordea, desabantaila nabarmen bat ere bazeukan, berehalaxe ikusiko dugun bezala. Izan ere, gure irakasleen artean, gehienak batere kexatzen ez baldin baziren ere, bazen bat, Pascual abizenekoa, oker ez banago, matematikakoa, hain zuzen ere, halako egoerak inondik inora ere jasaten ez zituen, eta, horren ondorioz, gure ikasgelara sartu baino lehen, ateko atalasean plantatu eta zera esaten zigun ozenki, zizpak hartuta:

-Egun on, gazteok! Ufi!, hori da hori ke-lainoa! Jasanezina! Bueno, ba, nahi baduzue ni horra sartzea eskola ematera, lehendabizi atea eta leiho guztiak ireki beharko dituzue gela egurasteko, bestela, hemen geldituko naiz! Zuek ikusi! Ea zer erabakitzen duzuen!

Orduan, jakina, irakaslea jarrera irmo hartan ikusita eta eskola hartu nahi genuenez gero, ez genuen beste erremediorik izaten atea eta leiho guztiak irekita uztea baino. Eta, gorago azaldu dudan arrazoiarengatik, ni ate pare-parean egoten nintzen, metro gutxiago egiteko sartu eta ateratzerakoan, baina, noski, nahiz eta nik tabakorik batere erre ez, hantxe pairatu behar izaten nituen keak eta haize-laster hotz guztiak, irakasle haren ikastorduek irauten zuten bitartean. Halaxe, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, matematika geneukan egun oro. Azkenean, ez zen batere harrigarria izaten, nik, noiz edo noiz, eztarriko mina edukitzea, ke astun harengatik, edota hotzeria jasatea, haize-laster hotz eta madarikatu hura zela eta. Zeresanik ez, aukitik altxatzeko momentuetan ere, askoz ere zailtasun handiagoak izaten nituen, gorputz adar guztiak hoztuta eta gogorturik gelditzen zitzaizkidalako.

Horrela, bada, azkeneko, Hirutasun Santuari gertatzen zitzaion antzeko zerbait pasatu ohi zitzaidan niri ere, alegia, ni pertsona bakarra nintzen, baina, hala ere, hiru kalte batera, gutxienez, jasan ohi nituen kolpe bakar batez, hau da, ke zikina, haize-laster izoxtua eta gaixotasun mordo bat, alajainetan!

Xanti Begiristain Madotz



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behoa 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

“Bukaera emateko garaia iritsi dela sentitu dugu”

2010ean sortu eta orain arte, plaza mordo bat alaitu dizkiguna da Gabenara. Taldearen ibilbideari amaiera ematea erabaki berri dute. Ana Arraras Zabaleta abeslari eta pandero-joleak eta Garazi Erbiti Goienetxe gitar-joleak azaldu dizkigute taldearen nondik norakoak.



Etxalarko festak 2013.jpg

8

Nolakoa izan zen Gabenara taldearen sorrera?

Aralar Musika Eskolan trikitia eta panderoa ikasten ari ginen Araitx eta Larraun ibarretako hirukote bat osatu genuen Iratik, Jaionek eta Anak. Etxez etxeko errondak, feriak, bazkariak eta afariak... girotzen hasi ginen. Honela urte batzuk aritu eta gero, gure irakasle Nerea Erbitik eta gertuko pertsonak animaturik, hirukotea handitu eta erromeria talde bat sortzea pentsatu genuen.

Irati soinu-txikiarekin, Jaionek panderoa jotzen zuen baina taldea osatzeko baxua jotzen ikastera animatu zen, Ana abeslari eta pandero-jole moduan, Leitzatik Garazi gitarrekin batu zen eta Lesakatik bateriarekin Mattin. Musika ekipoa eta teknikaria

“2011ko irailean Intzako festetan plazaratu ginen lehen aldiz”

ere behar genituen eta lan hauetarako Fermin, Garaziren aita, laguntzeko prest agertu zitzaigun, oso “saltxeroa” da eta ikastaro bat egin zuen gurekin martxan hastearren.

Urte batzuk badaramatzazue honetan. Nolakoa izan da zuen ibilbidea?

2010 bukaera aldera taldea osatu eta abestiak aukeratu ondoren entseatzten hasi ginen. Abestien zerrenda

ez zen makala, 65 abesti! Izan ere, erromeria taldeei ordu dexente jotzeko eskatzen digute, askotan arratsaldean ordu bat eta erdi eta ondoren, gauean lau orduz, beraz, abestien errepertorioa ere nahikoa izan behar plazen beharrak asetzeko!

Urtebete jo eta ke prestatzen ibili ondoren, 2011ko irailean Intzako festetan plazaratu ginen lehen aldiz eta geroztik, gelditu gabe jardun genuen pandemia iritsi zen arte.

Zuentzat ere pandemiarekin ete-naldia etorriko zen...

Inorentzat ez zen erraza izan etxean egon behar hori eta zuzeneko musika egiten dugunontzat gogorra izan zen emanaldirik gabe egotea, gure artean entseatzeko ere ezin bildu gintezkeen probintzia arteko mugimenduen mugengatik... eta honela, bi urte pasatu genituen plazak alaitu gabe baina denok hainbeste desio genuen eguna iritsi zen eta gu gogotsu geunden berriro ere bideari ekiteko, nahiz eta ia-ia zerotik hasi behar izan.

Taldekieak aldatuz joan zarete. Nola bizi izan dituzue momentu horiek?

Aldaketa guztietan izaten dira maldak... Taldekide berriak aurkitzea ez da lan erraza izaten, normalean ahok ahokoan jendeari galdetuz moldatu izan gara eta horrela jende asko ezagutu dugu. Hala ere, zortea izan dugu eta ezagutu ditugun musikariak taldean sartzea erabaki izanaz gain, oso ongi moldatu izan gara. Erromeria batean oso garrantzitsua iruditzen zaigu taldekideen arteko harremana ona izatea, ordu asko pasatzen baitira elkarrekin. Beraz, kide berriak aukeratzean, musika arloari begiratzeaz gain, taldearen izaerara ongi egokitu daitekeen norbait aurkitzen saiatu gara beti. Ondoren, entsegu asko egin behar izaten dira

musikari berria gure errepertoria egokitzeko.

Taldekideen artean emakumeek osatu duzue gehiengoa; kasualitatea ote?

Hasieratik elkartutako lagun-taldearen gehiengoa neskak ginen bai, bost musikarietatik lau. Urteen poderioz taldekideak aldatzen joan garenez, kide berrien etorrerak ere aurreko kopuruetatik gertu ibili dira, inoiz ez gara bi emakume baino gutxiago egon oholtza gainean. Akaso,

“Gehienbat Nafarroa iparraldean mugitu gara”

diogu zona honi guztiari. Badira gehiago errepikatu ditugun herri edo zonak eta gehiago gozatu ditugun kontzertuak, baino orokorrean gehien dantzatzeko duten herriei eta guregana gehien hurbildu diren ikusleei hartu diegu “kariño” gehien.

riari eusten. Urtero abesti berriren bat sartu badugu ere, ez ditugu betiko abesti eta dantzak kendu nahi izan. Ohitura hauek ere plazetan pixkanaka galtzen ari direla ikusten dugu eta urte hauetan honi eusten saiatu izan gara. Dantzatzeko piezak, mexikarrak, kalejirak... Gaur egun gazte askok nahiago izaten dituzte abesti berri gehiago dituzten taldeak, baina oraindik ere jende asko (tartean gazte dexente) dago horrelako musika gustoko duena eta plazetan horien falta sumatzen duena.



Lesakako Sanferminak 2016

zoriaren kontua izan daiteke baina ordezkoren bat bilatzerako orduan emakumeak agertu dira ia beti. Poz handia ematen digun gauza da benetan, emakume musikariz beteta gaudela ikusi baitugu urte hauetan, gainera, agian hain ohikoa ez den testuinguru batean. Laburbilduz, neskengandik sortutako talde bat izanik, nahiz eta helburua ez den eszenatokia neskez betetzea izan, neskak gailentzen direla ikustea ere pozgarria eta ederra da eta jarrai dezagun plazak betez!

Non eman izan dituzue kontzertuak? Kariño bereziki gustatzen zaizuen tokiren bat?

Gehienbat Nafarroa iparraldean mugitu gara eta aprezio handia hartu

Beti gustatu izan zaigu herritarrak ezagutzea eta beraiekin saltsan ibiltzea.

Udan izaten dituzue kontzertu gehienak, ezta?

Bai, normalean herriko festetan ibili izan gara, baina urtarrilean eta otsailean ihauterietako emanaldi solte batzuk izan ditugu, gero apirila bukaeran hasi eta jarraian, urria edo azarora aldera arte ibili izan gara josten. Gehienbat asteburuetan, baina herri gehienetako festak abuztuan izaten direnez, hilabete honetan astegunez ere izan ditugu emanaldiak.

Musika estiloari dagokionez, ze bilakaera izan duzue?

Beti saiatu izan gara betiko errome-

Duela gutxi, idazki bat atera duzue...

Bai, hamabi urteren ondoren taldea uzteko erabakia hartu dugu. Urte asko pasa ditugu plazaz plaza eta taldeak bere “esentzia” mantendu duen arren, taldekideen artean aldaketa asko egon da eta erabakia hartzea asko kostatzen bazagu ere, bukaera emateko garaia iritsi dela sentitu dugu. Garbi genuen gure bizitzako etapa bat izango zela eta honaino heldu da etapa hau. Orain bakoitzak bere bideari ekingo dio eta esperientzia berriak biziko ditugu.

Ze gauza onekin gelditzen zarete?

Bizipen honek asko erakutsi digu. Gehiengoa Gabenarekin murgildu ginen lan mundura, oso gazte hasi



Zurukuain, Euskararen Eguna 2013

baikinen, zaharrena 20 urterekin eta gazteena 16rekin... Pentsa, talde bat eramatea dakarrenak bakarrik asko erakusten du bizitzan.

“Bizipen honek asko erakutsi digu”

Honetaz gain, jende eta leku berri asko ezagutu dugu, Euskal Herriko txoko berezi asko. Hala ere, gehien bete gaituena ezagutu dugun jendea izan da, musika formatu honi urteak eskaini izanaren motorra, dudarik gabe!

Ahaztekoak ere gertatuko zitzaizkizuen...

Ez pentsa ahazteko esperientziarik dagoenik! Hain onak izan ez diren momentuak egon direnik ez dugu uko egingo; materialarekin arazoak

daudela, taldekideren bat azken momentuan gaituzten dela, kontzertua eman behar dugun lekuan muntaia egiteko arazoak daudela... Baina ez genuke esango ahazteko bizipenik izan denik, hauek denek hazten lagundu baitigute eta asko ikasi baitugu! Gure lehentasuna herria muskarik gabe ez uztea izan da eta beti lortu dugu modu batera edo bestera kontzertuak aurrera eramatea.

Anekdotarik?

Asko! Behin, herri batean emanaldia genuela eta, muntaketa lanetan hasi eta bertako jendea ea zer ospakizun zegoen galdezka hurbildu zitzaigun. Festak ote ziren pentsatzen ari girela, konturatu ginen hilabete bat aurreratu genuela emanaldia. Berriro ere dena jaso eta etxera!

Beste behin, etxetik bi ordura genuen emanaldi batera bateriaren platerak etxean ahaztuta joan eta ezta ohartu ere muntaketan hasi ginen arte. Bertako jendeari galdetuz, herritar bat bateri-jolea zen eta berak utzi zizkigun platerak. A ze estuasuna!

Hona hirugarren bat! Lehen musika-ekipoa eta instrumentuak remolke batekin mugitzen genituen. Bidean gindoazela, kotxetik kea ateratzen zela konturatu eta zer gertatzen zen ikusteko gelditu egin ginen. Handik minutu gutxira kotxeak su hartu zuen eta bertara inguratu zen jendeak lagunduta, remolkea kotxetik askatu eta aldentzea lortu genuen. Gu, izua gorputzean baina bestelako lesiorik gabe eta ekipoa eta instrumentuak arriskutik kanpo geratzean, etxetik engantxea zuen beste auto bat hartuta emanaldiko herrira joatea lortu genuen. Hone-lako ezustekoetan denbora azkar pasatzen den arren, bizi-bizi dena muntatu eta hitzartutako orduan puntual jotzen hasi ginen. Susto batean geratu zen dena eta gaitz erdi! Beste batean, herri bateko kontzer-

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

AMAIRU BAR
GITXKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK
948504352

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Ustegi (Araitx)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

*“Gaztetxoak ere erromeriak
sortzera animatu nahi
genituzke”*

tuan horren ongi pasa genuen, ondoren bertako jendearekin trago bat hartzen gelditzea erabaki genuela. Ohartzerako egunak argitu zuen eta herritarrek berriz ere soinua jotzeko eskatu ziguten. Azkenean, furgonetatik trikitia eta panderoa atera eta herriari buelta eman genion kalejira bat eginez. Diana polita izan zen!

Kontatzeko gehiago ere baditugu, baina guretzako zerbait ere gorde behar, kar-kar-kar!

Aurrera begira, musikari lotuta jarraituko duzue?

Ez diogu musikari inoiz aterik itxiko. Modu batera edo bestera, denek jarraituko dugu musika munduan. Behin honetan sartzean zaila da ateratzea.

Jendeari helarazi nahi diozuen mezurik?

Jendea plazetan dantzan aritzera animatu nahi dugu eta zuzeneko musikaren lana baloratu eta indarra ematera bultzatu nahi dugu. Datoren urtean plazaz plaza dantzan jarraitu nahiko genuke. Gaztetxoak ere erromeriak sortzera animatu nahi genituzke. Esperientzia zoragarria da. Jende asko ezagutzen da, asko ikasten da eta gainera lana egitearekin batera parranda ere egiten da!



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarria
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09



Atabal
akindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

**Etkez etxe
banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...
948513151



▶ GARCANDIA PALENTZIAKO GOTZAIN

San Migeleko Santutegian kapilau gisa aritutak Mikel Garcandia Goñi Palentziako gotzain izendatu du Francisco aita santuak. Hurrengo urtean hartuko du Etxarri Aranazkoak bere postu berriaren jabetza.



▶ PILOTA ESKOLAREN ZOZKETAN

Larraungo Pilota Eskolak saski erraldoi baten zozketa antolatu du aurten ere. Artxueta harategian daukate jarrita saskia eta boletoak 1€ salneurrian daude eskuragarri ohiko tokietan. Abenduaren 24an izango da zozketa.

ARKAITZ GOIKOETXEA, PLAZAOLAKO PARTZUERGO TURISTIKOKO LEHENDAKARI BERRIA

Gaur egun, partzuergoak 8 udal ditu kideen artean: Araitz, Areso, Goizueta, Imotz, Irurtzun, Larraun, Leitza eta Lekunberri. Negozio pribatuak, berriz, 90 dira: ostatuak, artisau eta ekoizleak, ostalariak eta bestelako turismo-zerbitzuak (bisita gidatuak, bizikleten alokairuak, bisita-zentro turistikoak, garrarioa, etab.). Aitor Larrazaren lekukoa hartu du Arkaitzek. Arduraz eta ilusioz ekin dio ibilbide berriari.





KORRIKAKO ARROPA SALGAI

2024ko martxoaren 14tik 24ra, Irundik Baionara joango da 23. Korrika. Harro herri dio lelo berriak eta materiala dagoeneko Larraungo AEK euskaltegian erosi daiteke, Lekunberrin.



AGUR PLEURA ETA PATXUKO NICE

Talde nafarrak abenduaren 23rako antolatu du agur jaialdia Elizondon eta gipuzkoarrek, berriz, abenduaren 8an agurtuko dituzte plazak Elizondon bertan. Azaroaren 18an Printzan emandakoa azken-aurreko kontzertua izan zen bientzat.

OSTOTS ENERGIA KOMUNITATEA AURKEZTU DUTE ARAITZEN

Lehen proiektuak autokontsumo partekatuko instalazio fotovoltaikoak izango direla adierazi zuten energia komunitateko kideek. Dagoeneko aztertuak dituzte ibarreko kontzejuetako frontoien teilatuak eta hauek eman ditzaketen aukerak. Orain bizilagunen aldetik proiektuak izango duen harreraren zain daude, instalazio hauek era egokian dimentsionatu ahal izateko. Bizilagunek izena emateko ostots.eus webgunea jarri dute herritarren eskura.



Gaztea bai, baina bizipen ugari

Gaur egun, Lekunberrin bizi da Taha Nahimi, bere bi lagunekin. Marokoarra da sortzez; hegoaldean dagoen Marrakex hirian jaio, eta bertan bizi izan zen 22 urte bete arte. Sei anai-arrebaz osaturiko familiako kide da, eta bera da denetan gazteena. Amak umezurtegi batean egiten zuen lan, eta Taha bera han bizi zen.

“Umezurztegia haien familia bihurtzen da”

4 urte zituela, bere amak “Umearen Etxea” izeneko umezurztegian lana lortu zuen eta han bizitzera joan ziren Taha eta bere ama Sahara. Asteburuetan soilik itzultzen ziren etxera Mohamed aitarengana eta anai-arrebengana. Umezurztegian gurasorik gabeko umeak edota zaindu ezin dituzten gurasodun umeak daudenez, umezurztegia haien familia bihurtzen da. Bertan egiten dute dena (jan, lo, jolastu, klaseak jaso...), bertan bizi dira, azken batean. Taharentzat ere familia bihurtu zen hura eta Rida izeneko lagun mina egin zuen. 18 urte bete arte, bertan bizi izan ziren. Hantxe jasotzen dute Lehen Hezkuntza eta hortik aurrera bertan bizi arren, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa beste ikastetxe batzuetan egiten dira. Hala egin zuten beraiek ere.

12-13 urte ingururekin, lagunartean, plastikozko poltsa beltzak merke erosi eta supermerkatuetan zein kalean garestiago saltzen hasi ziren, diru pixka bat lortzeko. Denborarekin, tabakoa saltzen zuten beste batzuek diru gehiago lortzen zutelara ikusi zuten eta beraiek ere horretan hasi ziren. 16-17 urterekin mekanikoa zen bere anaia Nordineri laguntzen hasi zen arratsaldetan eta hark propina ematen zion. Beranduago lanparak egiteko kobrea lantzen eta zurgin gisa ere aritu zen hilabete batzuetan, bere gustuko lana lortu zuen arte: larrua lantzeko artisautza. Azken horretan aritu zen 18 urtetatik hona etorri arte.

Marrakexetik kanpo askotan ibili izan da, baina Marokotik sekula atera gabea zen, nahiz eta umetatik izan duen Alemaniara joateko desioa. Maroko



iparraldeko jendeak, gertutasunagatik, gehiago hitz egiten du Europaz eta hango informazio gehiago dute orokorrean. Iparraldeko Tetuan hiriko lankide batek kanta bat jarri zuen behin (Cheb Adjel Tebghi Moul El Habette 2012) eta berari buruz hitz egiten zuela iruditu zitzaion Tahari. Esaldi batek herrialdetik ateratzeko esaten zuen eta ideia hori buruan izan zuen ordudunik. Taharen arabera, Marokon ez zara gosez hilko, baina zaila da dirua lortzea eta "dirurik ez baduzu, ez duzu batere balio". Han egun guztia lanean eman eta gero, 5 edo 10 euro besterik ez zituen lortzen. Europara bizitzera joanak ziren marokoarrak bisitan itzultzen zirenean, itxura hoberekin itzultzen ziren eta horrek zer pentsatua sortzen zion. Marokoar haiek gutxiago sufritzen zutela zirudien.

Europara bidaia

Facebooken Europara etortzeko lantxa berri bat ageri zen orrialdea atera zitzaion behin eta idatzi egin zien. Kudeatzaileak azalpenak eman eta gero, dirua aurrezteko denbora behar zuela erantzun zien Tahak. Harremanetan jarraitu zuten gerora eta 2018ko abuztuaren 21eko arratsal-



Taha Marrakexeko lagunekin

Europara bizitzera joanak ziren marokoarrak itxura hoberekin itzultzen ziren

dean lagunekin zegoela, dei bat jaso zuen: "Taha, autobusa berehala hartu beharra daukazu. Bihar Rabaten egon behar duzu". Aurpegia aldatu zitzaion eta bere lagunek zer gertatzen zen galdetu zioten. Egitera zihoana inork jakiterik ez zuenez nahi, Tangerren lan bat egitera joan behar zuela erantzun zien. Etxera joan eta amari lagunekin bidaia batera

zihoala esan zion. Gauean autobusa hartu eta goizaldera Rabateko ibaian egoteko esan zioten. Esan zioten lekuan, mantaz estaliriko egurrezko txalupa zahar bat zegoen. Manta jaso eta txalupa jendez lepo zegoela ikusi zuen. Igo edo ez zalantzan egon ondoren, 2.000 euro ordainduta igo zen. Ingurura begiratuta batzuk haien umeekin zeuden, beste batzuk lagunekin... Taha bakarrik. 65 pertsona zeuden guztira.

Itsasorantz abiatu eta itsas-erdian txalupa hartatik patera zahar batera lekualdatu ziren. Paterak ez zuen oso

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arbe-Atala

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA KRALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalde 19,
Lekunberri
MARTILO TXIKI
PARRUKA ESKOLA
www.martilotxiki.com
679 938 016

Botilaren tapatxo bana ur ematen zieten ahoa bustitzeko

fidagarria ematen, baina ez zegoen atzera bueltarik. Kexaka hasiz gero, itsasora botako zituzten eta akabo. Egunak pasatu ahala, bustita, bertan egiten zuten pixa edo botaka... jateko datilen bat besterik ez eta noizean behin botilaren tapatxo bana ur ematen zieten ahoa bustitzeko. Paterako hiru zuloatik ura sartzen zitzairen eta ez urperatzeko, txandaka aritu beharra zeukaten hura ateratzen. Han ez zegoen lo egiterik.

Modu horretan hiru egun pasatu ondoren, Cadizko itsasertzera iristear zirela, Marinako polizia ontzi handi bat ziztuan gerturatu eta olatuekin patera irauli zien ia-ia. Katalejuekin dena aztertu ondoren, alde egin zuen, baina urrunetik aztertzen zituzten. Haien artean gidaria nor zen jakin nahi zuten, itxuraz. Motor inguruan zeudenek manta bat jarri zuten gainetik gidaria nor zen ikus ez zedin eta itsasertzera hurbilduz jarraitu zuten. Polizia-ontzi txikiago bat etorri zitzairen orduan eta hara igoarazi zituzten. Poliziak patera urperatu zuen, motorra kendu ostean.

Itsasertzean Gurutze Gorrikoek artatu zituzten, arropa lehorra eta janaria eman zizkieten. Hiru egun



Taha ilobekin errekan

igaro zituzten bertan eta mugara bidali zituzten jarraian. Dokumentazioa eskatu zieten han eta ez bazuten, adina galdetzen zieten. 18 urte edo gehiago dituztenak bueltan bidaltzen dituztenez, Tahak 17 urte zituela esan zuen. Sevillako polizia etxe batera eraman zituzten eta bi egun pasatu zituzten bertan. Adina neurtzeko hortzetako froga bat egin zieten, eta ezer esan gabe, adin txikiaren zentro batean sartu zituzten. Gainean zeramaten guztia kendu zieten han eta ezin ziren irten.

Halako batean, komunean ezkutuan zuen mugikor batetik hizketan

harrapatu zuen Tetuango bat. Ez kontatzearen truke, dei bat egiten uzteko eskatu zion eta hark onartuta, Irurtzunen bizi den Rada arrebarekin hitz egitea lortu zuen Tahak. Familiakoei ongi zegoela helarazteko adina denbora izan zuen soilik. Zentroan hiru egun igaro eta pare bat saiakeraren ondoren, zentrotik ihes egitea lortu zuen. Sevillan nolabait beste hiru egun pasatu ondoren, kalean ezaguturiko marokoar batek Iruñeara etortzeko autobus txartel bat erosi zion.

Euskal Herriratzea

Rada arrebarekin elkartzean izugarriko poza sentitu zuen. Hemengo pisuetan dagoen isiltasuna txundigarria egin zitzaion eta kaleak horren garbi ikustea ere bai. Radak, Irurtzungo etxean jasotzeaz gain, 3 gauzarekin lagundu zion soilik: erroldatzen, osasun txartela egiten eta bankuko kontu korrante zenbakia irekitzen. Kultur etxeko gaztelera ikastaroan izena ematea gomendatu ondoren, ez ziola beste ezertan lagunduko esan zion, hortik aurrerakoa bere egitekoa zela. Tahak harriduraz hartu zuen arrebaren esana eta gaizki sentitu zen hasieran. Etorri berritan, hemen ez zuen lagunik, jendearekin ezin zen komunikatu eta une batez Marokora itzultzeko aukera ere pasa zitzaion burutik. Dena den, goizetan gaztelera ikasten serio hasi eta arratsaldetan herriko plazan futbolearen aritzen ziren lagun taldetxo batekin



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA**

ARALAR, 15

948 60 47 24



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

elkartzen hasi zen. Lagun horiek bertakoak ziren eta, Omarren lagun-tzarekin bereziki, asko hobetu zuten bere gaztelera. Arrebak esandakoa ulertzen hasi zen orduan. Marokoar batzuk haien artean soilik elkartzen dira eta gaztelera ongi ikasi gabe, mugatuak daude gauza askotarako. Taha, dagoeneko, gero eta errazago moldatzen hasia zen. Elektrizista ikastaro bat ere egin zuen.

Paperak lortzea zen hurrengo erronka. Arlo honi dagokion legedia aldakorra da, baina laburbilduta, 3 bide zeuzkan horretarako: horietako bat zen hemengo etxe bat erosi duzula frogatzea; beste aukera bat da hemengo norbaitekin ezkontzea; eta, azkenik, erroldatuta 3 urte pasatu eta gero, gutxienez urtebetekoa den lan kontratua lortzea. Azken aukera hori da gehiengoak jorratzen duena eta jasoko zaituzten aterperik ezean, paperik gabeko urte horiek oso gogorak izan daitezke. Tahari esaterako aita hil zitzaion tarte horretan eta sekulako egonezin uneak bizi izan zituen. Lan kontratua lortzea ere oso zaila da hemengo kontakturik eduki ezean eta badira egoera horretaz baliatzen saiatzen direnak. Tahari, esaterako, 8.000 euroren truke saldu nahi izan dizkiote lan kontratuak, baina egiazkoak edo faltsuak ziren ezin zion inork ziurtatu.

Saldotxon lortu zuen lana azkenean eta urtebete egin du dagoeneko bertan. Autoko gidabaimena lortzea da



Taha Rida lagun minarekin

Autoko gidabaimena lortzea da bere hurrengo erronka

bere hurrengo erronka eta azterketa teorikoa gaingitu du jada. Gustura bizi da Lekunberrin eta kiroldegira joaten da denbora libreduenean. Oso futbol-zalea da eta belauneko lesio bat izan arren, lana lortu baino lehen, Beti Kozkorrekin entrenatzen hasi zen. Berehala atzeman zioten lesioa, ordea, eta ezin zuen horrela segi. Belauneko ebakuntza egiteko 9.000 euro eskatzen zizkioten Marokon, eta ordaindu ezin zuenez, ordura arte irauten jarraitu zuen. Beti Kozkorreko entrenatzaileen gomen-

dioz medikura joan eta hemen egin zioten ebakuntza. Gaur egun, hobeki dago.

Euskaraz hitz batzuk besterik ez dakizki, baina dakien horri ahalik eta zuku gehien ateratzen saiatzen da. Etorri zenetik 5 urte pasa eta gero, 27 urterekin bere familia bisitatzera joango da laster. Gogoz gainezka dago eta bereziki, bere amarekin egoteko desiatzen. Ikaragarri maite du, eta hunkituta dago amak beragan pentsatuz sufritu behar izan duen guztiagatik. Hilabete pasako du Marrakexen eta ez daki egin nahi dituen plan guztietarako denborarik izango duen.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO
ELKANO
S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Sanmartinak ere joan zaizkigu

Umore ederrean ospatu zituzten festak Aldatzen eta Gaintzan. Eguraldi hotza eta umela izanagatik, irrifartsu igaro zituzten herriko egun berezi horiek. Ohitura onei eutsiz eta bertaratu zirenentzat zorionez, egitarau oparoa izan zuten biek ala biek. Batek baino gehiagok penaz agurtu zituen eskualdeko azken festak, baina ohartzerako iritsiko zaizkigu hurrengoak ere.



Argazkia: Agustin Saralegi



Argazkia: Beñat Pellejero



Argazkia: Agustin Saralegi



Argazkia: Beñat Pellejero



Argazkia: Agustin Saralegi



Argazkia: Agustin Saralegi

ALDAZKO JAIAK



Argazkiak: Garazi Moreno

Basarteta ibilbidea irekita

Astitzen hasi, Mendukilotik segi eta Aitzarratetatik barrena igarota, Iribasera arteko ibilbidea egin zuten Ondare Kultur Taldeak eta Iturraskarrik egindako deialdira joandakoek. 23 zutoinekin seinalatuta dauden 6,5 kilometroetan zehar, natura eta etnografiako hainbat azalpen jaso ahal izan zituzten. Bidean zehar, arropa-garbitegi zaharra, ehun urtetik gorako ezkia, Igartzuberrietako putzua eta Beristun irin-errota zaharra ikusi daitezke, besteak beste.



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Agoitzen saio ederra egin ostean, bere finalurrekoa irabazita igarozen Julio Soto finalera. Bere Anai-

tasunako bere kantukideak: Saioa Alkaiza, Joanes Illarregi, Xabat Illarregi, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo, Saats Karasatorre eta Sarai Robles. Aspaldiko urteetako finalik gazteena honakoa eta aurrera begira ilusionagarria.



Euskararen Eguna eta Kulturaldia 2023

Euskararen aldeko hainbat ekimen antolatu dituzte abendu hasieran, agendan ikus ditzakezue guztiak. Larraunen mikroipu in lehiaketaren sari banaketa eta binakako bakarriketa egingo dira, besteak beste. Araitz-Betelun, berriz, Kulturaldia antolatu dute abenduaren 1etik 10era. Egunero antolatu dute zerbait eta tartean abenduaren 9an Araitz-Beteluko eguna ospatuko dute.

Mendialdeko Azoka Ibiltariaren balantzea

Azaroaren 16an, Plazaolako Partzuego Turistikoaren egoitzan bildu ziren 2020tik azoka ibiltari hau bultzatzen duten eragileak. Azokaren helburua da, besteak beste, Plazaola-Mendialdea inguruko ustiategi eta tailerretan egiten diren elikagaiak eta artisauro-merkatuak ezagutaraztea eta horien zuzeneko salmenta bultzatzea.

2023an 9 merkatu egin dira Mendialdean. Batez beste, 25 postuk parte hartu dute, gehienak (% 75) eskualdekoak eta elikagaiak ekoizten dituztenak. Plazaola Partzuegoko kide diren inguruko eskualdeetako beste postu batzuk batu dira, baita Nafarroako beste eskualdeetakoak ere, kasu honetan Mendialdean egiten ez diren produktuekin (olioa, zainzuriak, ardoa, etab.). Salmenten espektatibei dagokienez, nahiz eta erantzuna ez den uniforme egindako merkatu guztietan, oro har, aurreikuspenak bete dira, eta are gehiago, aurten azokaren batean gaintitu egin dira.



Gau Beltza poz iturri

Ohitura zaharrak berrituz, Gau Beltza ospatu zuten Oderitz, Lekunberri eta Betelun besteak beste. Herri horietako argazkiak jasotzeaz gain, hurrengo testutxoare bidali digute Araxes ikastetxeko ikasleek:

GAU BELTZA BETELUKO AMAVIR-EN

Urriaren 31n, Beteluko eskolako LH2 eta LH3ko haurrak, Eleni ileapaintzaileak luzatutako gonbidapena onartuz, Amavir-era joan ginen Gau Beltza ospatzera. Hasteko, "sorginak" eta "adarakarrak" ongi etorria eman ziguten. Haur bakoitzak bere burua aurkeztu (izena eta nongoa zen esanez) eta aurrean eserita, maskara eta guzti, zeuden egoiliarren artean ezagutzen zuenarengana hurbildu eta agurtu zuten.

Ondoren, egoiliarrek, Gau Beltzaren esanahia eta garai bateko ohiturak azaldu zizkiguten eta beraien prestatutako koreografia eskaini ziguten. Segidan, ikasleek, aurreko larunbaterako "San Simon eta San Juda" eguna kontuan hartuta prestatutako kanta eta koreografia eskaini zuten. Harrera bikaina izan zuen. Giro ezin hobean, poz pozik eta alai-alai, elkarrekin argazki bat atera eta agurtu genituen.


Kanpoko oiloei begira geundela, bi egoiliar topatu genituen. Eguraldi bikaina aprobetxatuz, beraien familiekin bueltatxo bat ematera joan zirela esan ziguten. Ikasleak berehala agertu ziren beraien koreografia eskaintzeko prest, esker ona jasoz.

Eskolarako bidean topatu genuen guztia aipatuz (kalabazak, armarriak, antzarak, baratzeko landareak izendatuz...) abiatu ginen eskola aldera. 88 urteko gizon batekin ere hitz egin genuen. Bere etxe atarian eguzkia hartzen ari zen. Umeak ikusi eta gurekin hitz egitera altxatu zen. Intzatic etorri omen zen 8 urterekin eta geroztik hantxe bizi da, orain Nikaraguako emakume baten laguntzaz.

Eta horrelaxe, salto eta brinko, eskolara itzuli ginen.

"Araxes ikastetxeko LH2 eta LH3ko ikasleak"

LEKUNBERRI



Argazkiak: Ana Telletxea

BETELU



Argazkiak: Joseba García

ODERITZ



Argazkiak: Teresa Mariñelarena

Sare sozialetan zintzilik

Ez nuen usteko, baina bai, sare sozialetara kateatuta nago. Nire ekitaldiak zabaltzeko, besteak beste, ikusteko, musika entzuteko, bideoak ikusi, jendearekin harremanak... Egunean ez dakit zenbatetan ikusten dudun mugikorra, ordenagailua berdin... asko, aukeran gehiegi. Ausartuko nintzateke esatera 4 ordu inguru egoten naizela (gosaltzen dudun bitartean, gauean...), egunero.

Ezin ukatu lanerako tresna ederra direla sare sozialak, komunikaziorako informaziorako... zentzu horretan lotu nautela uste dut. Whatsapp, Instagram edo posta elektronikoa gabe ezingo nintzateke bizi orain bizi naizen bezala. Berdin musika entzuteko, beste musikari batzuetatik ikasteko... Beraz, ezinbesteko bihurtu zaizkit sareak. Hasieran iraultza zena ordea, arraro ari da bihurtzen orain.

Beldurgarria ari da izaten bilakaera. Lehenago ia ez zegoen propagandarik, pixkanaka sartzen hasi zen eta orain 5 minutuero iragarki bat jartzen dute. Beldurgarria bai nola pixkanaka sartzen doazen, nola erabiltzaileen tolerantzia maila handitzen doan... Jartzen dute aukera bai, iragarkirik nahi ez baduzu, ordaindu eta listo.

Kezkatuta nauka ere ze informazio iradokitzen didaten sareek, adi egonda ere, iritzi mota susmagarri dezente, munduaren errealitate partziala... eta adiktiboa! Lekunberrin edo Gaintzan egonda ere, nire burua ordu askoz munduan zehar dabil informazio honen ondorioz, deserritu egiten nauela uste dut. Nire erara margotua bada ere, mundu ikuspegi konfuzionatua.

Eta agian beldurgarriena nire burua nola sareetan erakutsi, besteena nola ikusi, irudiak sortzearen sentsazioa dut, artifiziala, interesatua... eta denak batera hizketan ariko bagina bezala... Agian gaindosia hartuta nago, ez da harritzekoa, pandemia ondotik ordu asko pasa ditut ordenagailuan eta... Ea norantza noan, baina gai serioa da. Ematen dutena baina gehiago kentzen badidate, zeozer egin beharko dut. Niri bakarrik gertatzen al zait?



10 urteko uzta, euskarari puzka

Nafarroa hegoaldekoak propio diren produktuak Euskal Herrian zehar zabaltzeko eta zonaldeko euskalgintzari ekarpena egiteko xedea duen egitasmoa da Errigora. 2013an hasitako proiektu honek 10 urte bete ditu eta denbora guzti honetan, jende mordo harritzeko gai izan da.

Urriaren 20an hasi eta azaroaren 9an amaitu den kanpainaren bidez, 14.000 saskitik gora banatu dituzte aurten. 185.000 euroko ekarpena egingo diote Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzari guzti horri esker. Ager ere-

muko AEK; Tutera, Lodosa eta Vianako ikastolak, eskoletako D ereduko lerroak eta Agerraldia bultzatuko dira. Honenbestez, 10 urteko kanpainak euskalgintzaroko emana, 2 miloi eurotara iritsi da.

Ekimenari oihartzuna ematearen truke, Mailopeko bazkideen artean zozketa egin eta banatzeko 3 saski eman zizkigun Errigorak. Horiei, Lezaun upategirako bisita eta bi lagunentzako bazkari txartela gehitu zitzaizkion, 10 urteren ospazkizuna baliatuz. Saskiak Ane Barberia, Jexux Estanga eta Urko Aristiri tokatu zaizkie. Upategirako bisita eta bi lagunentzako bazkaria berriz, Esther Mikeori. Zorionak eta on dagizuela!




Ametz, Xua, Eneritz eta Jexux



Egoitz, Maddi, Eneko, Enar eta Ane



Esther Mikeo Amondarain



Urko Aristi Urdanpilleta

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-KLINIKA

Ametz Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

Greba Feminista Orokorra

Greba feminista orokorra eta indarkeria matxistaren kontrako egunaren harira, deialdi ugari egin dira azaroan gure eskualdean. Zaintza eskubide kolektiboa erdigunean jarriz, bertako errealitatea hobeki ezagutzeko balio izan dute hainbat ekimenek. Deialdi hauen prestaketako bilera irekiak egin dituzte eta Tximutxe Bilgune Feministak esaterako hitzaldi-solasaldi interesgarria antolatu zuen Araizko udaletxean. Ahoztar Zelaieta kazetari eta kriminologoak azpimarratu zuenez, negozio handia da zahar etxeena, eta pribatizazioaren eskutik, enpresa handi gutxi batzuk ari dira etekina ateratzen. Nafarroaren kasuan, 72 zahar etxe daude, eta horietatik 3 baino ez dira publikoak gaur egun.



Lekunberriko manifestazioa

Beteluko Amavir zahar etxea da horietako bat eta langileek beren egoeraren berri eman zuten. Horien eskaera nagusia da Nafarroan hitzarmen propio bat egin dezatela zahar etxeetarako, gaur-gaurkoz Espainiakoa ezartzen baitiete, eta, ondorioz, Gipuzkoako nahiz Bizkaiko zahar etxeetako langileek baino lan baldintza kaskarragoak dituzte. Besteak beste, eskatzen dutena da lanorduak murriztea (1792 orduz egiten dute lan urtean; EAEko langileek baino 200 ordu gehiago), soldata igotzea (oinarrizko soldata 1.100 euro dira; EAEn 1.500tik gora kobratzen dute), ratioak jaistea, eta baja hartzeko eta egun horietan kobratzeko eskubidea bermatzea. Hala, Beteluko Udalarari ere eskatu zioten beren alde egiteko eta laneko egoera hobetzeko borrokan babesa emateko.


Larraungo Berdintasun Mahaiak deituta, "Putaren bakarrizketa eroetxean" antzerkiak eta zaintzaren



Araizko mahai inguruak

inguruko mahai inguruaz gain, manifestazio jendetsua egin zen azaroaren 25an indarkeria matxistaren aurka. Lekunberriko udaletxetik Larraungo udaletxera egin zen, txalaparta eta musika eskolako laguntzaz borobilduz amaiera ekitaldia. Egun berean, Betelun ere elkarretaratzea egin zen.

Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egin zen Euskal Herrian,



Putaren bakarrizketa eroetxean

zaintza eskubide kolektiboaren alde. Gurean ere lanuzteak eta protestak antolatu ziren egun horretarako. Araitzen esaterako herri-jira zaratatsua egin zuten herriz herri, eta jarraian manifestazioa, Beteluko aparkalekutik hasi eta Amavir zahar etxeraino. Herritarrek beren babesa erakutsi nahi izan zieten hainbeste hilabetez beren eskubideen alde borrokan ari diren zahar etxeko langileei.

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Allandoak

Neguen bukaeran makilez kolpatzeu lurre, esnatu ta berrize ernetzen hasteko; udan atarin *Urri-urri salto*, zarrak bota eta berrie gustoz hasteko; udazkenean barrue beire jarri eta animek ikusi, been kalabaza ta guzti; ta urtean akabera allando, allando neguei!

Jolas baten bueltan, goan dauket oanyo nola hasi giñen herrin berrize allandotako prepaatzen. Urte askoan galdue eon zela ohiture eta hasi behar giñula ba berriz etxez etxe kantun. Allandotan ibiltzea, o allandotaa ateatzea esaten zaio Araitz aldean egoarritako eskeai. Berez, kristautasunek muturre sartu zunetik bintzet, Jesukristo gure jainkoan etorreraz abixatzeko ibiltze omen da etxez etxe kantun. *Hator-hator mutil etxera; din-dan-don, din-dan-don; eta horra Mari Domingi, bere gona zar ta guzti!; Alaken, alaken, ala pikula tun paire, errespunde la pikula tunpa,...*

Kantak kanta, ITVa pasatzeko balio izan due gurean bintzet allandoak. Egie esan, gure ahots afinatuk aitzeko, ez bintzet. Zeñek joan nahiko luke *gaztaña ximelak jatera*; Belen baño bertaxau beharko luke bintzet *Goazen artzaiak, salto ta brinko mendian barrena joateko*.

Etxe batean baño gehiotan moztu izan due gure kantaldie kantarin errepasoa itteko: "jesus, jesus, bñ zenbat haunditu zea neskatoa!"; "Zo ze etxetakoa zea, ba? lengo urtean ez ziñen naski etorri? (...) Ah, bai! Jose Main iloa zea zo? Osota ganbiatue zaude zo motikoa, biotean itzala re baukezo ta dauneko!

Ta *Astoa ta idia daude aldemenean, arnasaz berotzeko...* arnasaz ez dakit baño masallek gorri-gorri in, eskeñitako galleta hartu ta aurea! Hurrungo etxean *Ole, Olentzero* eta *Bizar zuri, bizar zuri,...* gure zai pipe hortzetan duela entendimentuz jantzitako beste tripehaundi bi! Haratx! Aurten ee ez omen daukue ba gui emateko kanbioik, jeje... Sagardo tragotxo bat, beste pasta pare bat eta *Dingili-dron gaur Gabon, tripia betea dauket eta besteak hor konpon!*

Gure kantukin ez duu iñor emozionatuko, baña oso ohiture politte da allandoana. Herritarrak bisitatzeko eune, kax-kax atean, zapel ta zapi dotoreakin jarri eskaparatean eta auzoakin kontu goxo batzuk esateko aukera earra.

Eztakit zein krixtok asmatuko zun, baño kristona da!

Hurrengoa:

Eva Fernandez (Lekunberri)






Maider Balda
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Uitziko meatzeak (862m)

Ibilbidea: joan-etorri edo zirkularra (aukeran)
Distantzia: 6,98 km
Desnibela: 316 m
Zailtasuna: erraza



Nire gomendioa: bidea oso erraza da eta edozein urtarotan joateak bere xarma dauka paisaia ezberdinez disfrutatuz. Gainera, behin goian zaudela pixka bat gehiago ibili nahi baduzu, lehen aipatutako ibilbide zirkularra egin dezakezu. Animatu!

Zergatik aukeratu dut?

Lekunberritik abiatuta edozein egunetan egin dezakezun ibilbide polit bat da; izan ere, ez duzu denbora askorik behar buelta hau egiteko. Gainera, Etxarri, Uitziko eta Lekunberri herriak elkartzen dituen mugaren puntua ikus dezakegu.

Bidea:

- 1 Lekunberritik hasita Etxarriko bordetarantz dijoan bidea hartuko dugu. Berehala, Plazaolarantz dijoan ezkererako bidea hartuko dugu.
- 2 Plazaolako bidea hartu eta 400 metro ingurura eskuineko bidea hartuko dugu, Hirumuga Park alderantz dijoan bidea hain zuzen ere.
- 3 Bidea zuzen jarraitu eta 600 metrora eskuineko bidea hartuko dugu.
- 4 Bidegurutzea hartu eta 1 kilometro ingurura honako bide hau hartuko dugu. Handik gutxira, 300 metro ingurura goranzko bidea hartuko dugu langa bat ikusi arte.
- 5 Bidegurutze hau ikusitakoan zapalduta dagoen bidetik joango gara; hau da, ezkerreko bidetik. Hemendik aurrera gorantz dijoan bidea hartuko dugu.
- 6 Goranzko bidea jarraituz, langa batera iritsiko gara. Han, Hirumuga dago, non Uitziko, Etxarri eta Lekunberri herriak elkartzen diren.
- 7 Zuzen jarraitu behar dugu Uitziko meatzetara iritsi arte.
- 8 Azkenean, Uitziko meatzetara irisiko gara. Hauek ezkerrean izango ditugu. Hemendik aurrera, itzultzeko bi aukera ditugu: lehenengo aukera etorri garen bidetik itzultzea da. Bigarren aukeran berriz, bidea jarraituz beherantz joanda 2 kilometro ingurutara plazaolako bidean agertuko zara, Uitziko tunel luzean hain zuzen ere. Hemendik ezkerrean Plazaola hartu eta berriro Lekunberriantzean joan zaitezke, bide zirkularra eginez.



Behobia-Donostia lasterketa

Urtero bezala, korrikalari mordo batek hartu du parte Behobia-Donostia lasterketan. 30.000 inguru izan dira aurtan eta 2015eko parte hartzaile errekorra berdindu da. Eskualdeko jendea ere izan zen bertan eta jarraian haietako batzuen denborak: 01:22:59 Kevin Vera Saizar (Lekunberri). 01:33:33 Ander Arraztio Saralegi (Betelu). 01:44:16 Beatriz Oreja Garralda (Lekunberri). 01:45:22 Angel Soroa Onsalo (Lekunberri)

Martirena eta Ezkurra txapelkun Azpeitian

Ibai Martirena eta Josetxo Ezkurrak irabazi zuten erremonteko Azpeitiako torneo. Kemen Aldabe eta Aritz Juaneña izan zituzten aurkari. 15-11 nagusitu zitzaizkien lehen setean eta 15-4 bigarreanean. Hasiera berdindua izan zen eta partidu gogorra espero zitekeen, baina hortik aurrera bikote gorria nagusitu zen.



Mendigoizaleen Eguna ospatuko da Aralarko santutegian

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak deituta, ohikoa denez, Nafarroako mendi klub guztietako mendizaleak elkartuko dira abenduaren 17an. Batzuk Uhartetik igoko dira, beste batzuk Madoztik, Lizarrustitik igoko direnak ere izango dira eta baita Lekunberrietik ere. Mendizaleen mezarekin emango zaio hasiera ospakizunei eta ondoren hamaiketako ederra prestatuko dute aterpean, trikitilariekin alaituta. Giro paregabea izaten da egun horretan eta bertara igotzea merezi du.



Ibai Soroa txapelkunorde Donezteben

Nafarroako 1. mailako Aizkolari Txapelketako finala jokatu zen azaroaren 17an Donezteben. Txomin Amundarain eta Ibai Soroa aritu ziren bertan eta lan txukuna egin zuten. Iker Vicentek duen mailari aurre egitea zaila da gaur egun eta bederatzigarren aldiz lortu zuen txapel hau. Hamarna enbor moztu behar izan zituzten finalistek eta hurrengo denborak egin zituzten: 1. Iker Vicente 28'36". 2. Ibai Soroa 34'30". 3. Jon Rekondo 35'53". 4. Joxean Etxeberria 39'45". 5. Txomin Amundarain 42'03".





Araxeseko neskak sasoiko

Azaroaren 11n Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketako jardunaldi bat burutu zen eta bertan emakumezkoen 250kg modalitatean bigarren postua lortu dute; lorpen bikaina. Honetaz gain, Araxeseko kidea ere baden Laida Zabaletak Ibarra taldearekin txapela lortu zuen. Berriozar taldeak antolatutako sokatira txapelketa ez ofiziala ere aipagarria da. 4x4ko emakumezkoen 245kg modalitatean, Araxesekoak ere badiren Laida Zabaletak, Leire Olanok eta Saioa Iriartek, txapela lortu zuten Ibarra taldearekin. Araxeseko taldean Iraide Satrustegik eta Inge Zubillagak debutatu zuten lan oso ona eginez. 8x8ko Nafarroa mailako txapelketan ere lan txukuna egin zuten. Nahiane Ijurkoren lehen lehiaketa egunak pozgarriak izan ziren eta sailkapen orokorrean bosgarren postua eskuratu zuten.

Bardea Natur Parkera txangoa

Unescok Biosferaren Erreserba izendatu zuen eta Ttuturre K.E.ren helburuetako bat, bazkideei eta lagunei Euskal Herriko haranak, mendiak eta herriak ezagutzea erraztea da. Abenduaren 10ean zerbait desberdina egin eta Nafarroako hegoaldera mugituko dira, Errege Bardeara zehazki, hiru eremutan bereizten dena: Bardea Laua, Bardea Zuria eta Bardea Beltza. Kasu honetan, Aragoiko Bost Hiribilduetatik hurbilen dagoena aukeratu dute. Ibilbidea Antso Abarkako behatoki ikusgarritik abiatuko dute, Tauste herrikoa (Zaragoza). Lehenbiziko kasuan, Punta Beltza eta Punta Akutua bisitatuko dituzte, Caideroko Lautada zabalean barna, Antso Abarkako santutegian amaitzen den ibilbide zirkularrean. Gutxi gorabeherako denbora: 4:30 min. Gainerako parte-hartzaileek Aguilar puntara iristeko aukera dute, baita ibilbide zirkular batean ere. Gutxi gorabeherako denbora: 2:40m. Bi ibilbideetan Nafarroako eta Aragoiko Bardeei buruzko bista ikusgarriez gozatuko dute, eta eguna amaitzeko, 2023ko irteera-egutegiko azken bazkaria izango dute Santxo Abarkako hotel santutegian.



Goiztiarrak sasoi betean

Larreak Bizirik gau proba irabazi zuen Lorea Burgetek eta Raul Amatriainek berriz hirugarren egin zuen. Aurrez, Iñigo Lasarte ere Peraltako Azkotrail proban gailendu zen. Indarrez ekin dio taldeak ikasturte hasierari eta maila honi eutsita, emaitza pozgarriak iritsiko zaizkigu aurrerantzean ere.



Guillermo Mazo txapelketa Lekunberrin

Nafarroako gazte mailako pilotarien lau eta Erdiko txapelketa da Guillermo Mazo eta berrogei pilotarik parte hartu dute aurten. Astearteetan Uharteko Arakilen eta asteazkenetan Lekunberrin jokatu dira partidak. Final laurdenetatik aurrerakoak Jayan Jai pilotalekuan jokatu dira, finala abenduaren 3an 11:00etan izanik.

● ● Idoia Zabaleta Aranburu

Argazki kameraren atzetik

Argazkilaria da Idoia Zabaleta Aranburu. Ferminaren alaba Leitzakoa da izatez, baina Iruñean bizitakoa eta azken urteetan baita Atallun ere. Argazkipress-entzat egiten du lan gehien, baina behar duen guztiari eskaintzen dio argazki zerbitzua.



Argazkiak: Idoia Zabaleta Aranburu

Ostalaritzan urte askoz lan egitez nekatu eta gero, argazkilaritza gustuko zuenez, Argazkilaritza ikasketak burutu zituen Iruñeko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolan. Ikasten ari zela, "Gaztediaren Etxean" ikastaroak ematen hasi zen euskaraz, urte pare

batez edo. Orduan analogikoan lan egiten zuten eta ikastaroan, argazkiak nola egin, errebelatu, posibilitatu... erakusten zuen. 2000. urte inguruan, 7Krako lan batzuk egiten hasi zen eta hor egin zuen lan 6 urtez. Argazki on bat ateratzeko: lekuan

egotea, aurreikustea eta norbere kamera ongi ezagutzea da garrantzitsuena bere ustez. Kaleko argazkiak, bidaietako argazkiak eta erretratuak ateratzea du gustuko batez ere Idoiak eta gaur egun, lan gehien Argazkipress-entzat (FOKU) egiten badu ere, bere argazki zerbitzua behar duen guztiari eskaintzen dio. Webguneetako argazkiak ere egin izan ditu eta ezkontzaren bat ere bai lagunentzat, azkena Covid garaian. Kurioso iruditu zitzaion egoera horretan ezkontza bat egitea, jende gutxi eta gonbidatuak musukoak traje edo soinekoarekin konjuntatuta.

Lan guztiak bezala, bere alde ona eta ez hain polita dauzka. Fotokazetari-tzan (kirola, kultura, politika, gizarte) alde batetik bestera ibili behar dira eta batzuetan, denbora eskasarekin. Beste batzuetan, argazki politikak eta jende interesgarria ezagutzeko parada ematen dio eta horrelakoetan, pertsona pribilegiatua dela pentsatzen du.

Bitxikeriengatik galdetuta, hasierakoa da beti gogoratzen duena:

"Sanferminetako entzierroan, nire aurreneko entzierroa zen Estafetako kurban eta goizeko 5:30ean han nengoen lekua hartzeko. Oraindik gaua zen eta jendea parrandan zebilen, baina ni han mugitu gabe. Zortziak jotzeko hamar minutu faltan argaz-

Lan guztiak bezala, bere alde ona eta ez hain polita dauzka

kilari amerikar ospetsu bat etorri eta nire lekuan jarri zen...

-Nik: Barkatu baina hor ni nago.

-Argazkilaria amerikarrak: Sorry, I don't understand (barkatu, ez dut ulertzen).

-Nik: That you don't understand! I've been here since 5:30h and that's my place!! (ez duzula ulertzen! Hemen




Gaur egun, argazkilariak gutxietsiak daudela uste du

izan naiz goizeko 5:30etik eta hori nire lekua da!!).

Beno, erantzuna askoz ere luzeagoa izan zen... baina nahiz eta txikia izan, zuzen jarri nuen. Argazkilari ospetsu hark beste leku batera alde egin behar izan zuen eta nire inguruko argazkilariei irrifarrak igarri nizkien."

Aurrera begira ez dago oso baikor. Gaur egun, argazkilariak gutxietsiak daudela uste du. Denok dugunez sakelako telefonoa eta harekin argazkiak egiteko kamera, batzuk, argazkilarien lana hobby bat izango balitz bezala hartzen dutela dio. Adimen artifizialak ere kalte egingo digula uste du. "Egia esan, gustukoa dudanak ez dit dirurik emango, baina disfrutatuko dut."



Idoiarekin kontaktatu nahi izanez gero, www.idoiazabaleta.com webgunea du eta hor dator informazio pixka bat. Orain dela urte batzuk berriro gabe dagoela dio eta aspaldi ez dituela argazki berriak igo, baina bere lana ikusteko erakusleihen ona da.

CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSEKITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📞 616 457 540
✉ construccionesganarbe@gmail.com
📞 636 827 846

Lekunberriko etxebizitzetan portxeak egiteko baldintzak

Abenduaren 11 arte dago irekita, ordenantzaren inguruko argibideak eskatzeko eta zalantzak argitzeko epea. Galderaren bat egin nahi duenak bulegoak@lekunberri.eus helbide elektronikora idatzi dezake mezua eta hortik arkitektoari helaraziko zaio. Udalaren webgunean dago argitaratuta ordenantza.



Euskarazko Produktuen Katalogoa

Urteko garai hau seme-alabei edo inguruko euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute beste urte batez. Aurtengoa 25. edizioa da. KATALOGOA.EUS maiztasunez eguneratzen den web orria da eta 8.000 produkturen erreferentziak jasotzen ditu dagoeneko. Jasota dituzten produktuak bi ataletan dituzte sailkatuak: atal bat 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua dago, eta bestea 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin.



Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek

BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen amasguneel bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan amasguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta amasguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako



Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.

Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta halen kalitatea azpimarratzekoa izan da.

10-16 urte bitarteko gazteek parte hartu dute.

ikasleek ere. Irailean abiatutako "Arnasetik" sormen lehiaketak azaroaren 22an izan zuen amaiera gala, Zarautzeko Modelo Aretoan. Lehiaketaren bigarren edizioaren arrakastatsua izan da. Iaz helain 13

lan gehiago jaso direlarik. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta amasguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenel lotuak. Nahia Sillero influentzerra izan zen gidaria, eta Deñe musikariak hiru pieza eskaini zituen.

Arnasa Gara ekimena euskararen amasguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrak ahalduzko helburuarekin joko zen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak suslatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta amasguneetako gazteboenak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta halen sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Info gehiago: www.amasagara.eus

ABENDUA

1 - 19:00 Txikiren bakarrizketa, Lezaetako elizan.

2 - 19:00 Nere Sotilen hitzaldi-tailerra: Elikadura osasuntsua. Errazkingo elkartean.

3 - Leitzako Jaiki abesbatzaren kontzertua, Beteluko elizan.

3 - 12:00 "Voces Graves de Pamplona" abesbatza, Le-kunberriko San Juan Bataiatzailearen elizan

3 - Euskararen eguna, Gabarin: **12:30** Mikroipuin Le-hiaketa sari banaketa ekitaldia. **17:00-18:30** Gaitu egitasmoari ekarpena egiteko aukera. **18:30** Binakako bakarrizketa, Mirari Martirena eta Idoia Torregarairekin: Luze edo Motz.

3 - 19:00 Mahai-ingurua Gabezin eta Gabenara taldeko kideekin, Arribeko elkartean.

4 - 19:00 Diaporama-solasaldia Joxe Martin Otaegiren eskutik, eskualdeko hegaztiei buruz. Uztegin.

5 - 17:00 Haurrentzako txotxongiloak, Zurrumuru antzerki taldearen eskutik. Gaintzako elkartean.

5 - 19:00 Mattin Aiestaranen eskutik hitzaldia: Irulegiko eskua. Gabarin.

5 - Atalluko elkartean: **17:00** Mus Txapelketa azkarra. **21:00** Bertso afaria. Txartelak 25€ ohiko lekuetan. **Ondoren** Gau-pasa.

6 - 19:00 Hitzaldi-solasaldia Izarkomen eskutik: Telekomunikazio burujabetza. Intzako elkartean.

7 - 19:00 Futbola eta euskara mahai-ingurua: Jagoba Arrasate (Osasuna), Mikel Labaka (Erreal) eta Izaro Tores (Alaves), Josu Ganuzaren gidaritzapean. Beteluko elkartean.

8 - 22:00 Tapia eta Leuriaren kontzertua, Azkaraten.

9 - Araitz-Beteluko Eguna, Betelun: Goiz soinua txistulariekin. **11:00** Herri kirol erakustaldia plazan. Goiz osoan zehar taloak izanen dira. **13:00** Dantzari txikien saioa. **14:00** Bazkaria Beteluko elkartean. Txartelak ohiko lekuetan, helduak 20€, haurrak 5€. **Ondoren** Edorta Amuruaren saioa: Euskal Kantagintzaren harribitxiak.

10 - 17:00 Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, bikoteko 20€. Arribeko elkartean.

10 - Bardeako Natur Parkean ibilaldia, Ttutturre K.E.ren eskutik.

17 - 17:00-20:00 Muxutruk Printzan. Arropa, jostailuak... hartzeko une aproposa.

17 - Mendigoizaleen Eguna, Aralalarko Santutegian.

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia - 948 210 103
mailopez@labrit.net



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007

sotilgarajea@gmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologia
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainetan
- Mikroblading bekainetan

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

2024ko Mailope - ren Egutegia

Kaixo, irakurle!

Urtea bukatzeaz den honetan, aurten ere egutegi bat oparitu nahi dizugu urtarrileko zenbakian. Beti egin ohi dugun moduan, zure laguntza behar dugu horretarako, zuek ateratako argazkiekin edertu nahi baitugu egutegia! Iaz, maskotak izan genituen protagonista, eta aurten berriz, honako **gai hau aukeratu dugu: PAISAIAK**. Zuen gustuko bistak ezagutu nahi ditugu, hainbeste maite dituzuen leku kuttunak.

Bidali etxe ondoko edota kanpoko paisaiak, sarri joaten zareten txoko batekoak edota bidaia bereziren batekoak: mendian, itsasoan, basamortuan... Edozein paisaia izan daiteke. Zuek ere ager zaitezke argazkian, noski! Jasotzen ditugun argazkien artean, batzuk aukeratu eta egutegi polit bat osatuko dugu, zuen denon etxeetan jar dezazuen.



Abenduaren 22ra arteko epea duzue argazkiak bidaltzeko, helbide honetara:
mailope@labrit.net

**ESKERRIK ASKO ZUEN
KONPROMISOAGATIK!**